Itxastxorien bindikapena

o

Omar Nabarro

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Omar Nabarro
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984ko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Paper zuri bakoitzean,
poema bat imaginatu uste izan dut.
Guztiak erre dira, paperekin batera.

Paper zuri bakoitzean,
poema bat idatzi dut.
Guztiak erre dira, paperekin batera.

Keetan,
ai, keetan
ez dut
inolako alderik nabaritu.

Poemak, alde egin dute,
ez baitira sekulan izan
poema honetan ezik.

ITSASTXORIEN BINDIKAPENA

Ibar ezkerra

Aleman barkuak gauero atrakatzen du Zorrotzako portuan
hortxe behean
autopista muga dugularik
marraskilo erako zubia pasabide hestua gainetik.
Gizaki har arrunta pattarra
aurrean
goizero
kafe urtsua
bus jendetsua
lantegia ala herria
herri barne lantegitsua.
Urrutiago Portugalete
itsasadar zikinaren ibar ezkerrean
burdinezko zubitzarra
zementuzko Errontegi erraldoia eta gero.
Agudo goaz denok
etsipenean behera
kresal usaina antzeman ezinik
laino ketsuan zehar
aldapan gora
hilerriraino.

Nerbioi

Antxeta saldoa kontainerretan
haizea urgaina bihurriaren horrazi
zornea zauri zolduan zaborra
badoa itsasuntzi arabiarra
marinel ikusgurak so brankatik

Ibarrean tximiniak tantai ihartuak

piztitzar fosilatuen antzeko gruez inguraturik
burdin meazko zelai ilunetan zutik
non lan bait dagite gizartxinurriek
goian zerua mili koloretan zarrastatua

Antxeten estolda

Geratuta
entolda ahoan
antxeta zuri birjinalak
goiz eguzkitsuari begira
barregura direneko
aurpegiaz.

Ispilu ilunak

Argiaren itzala
ez da ikusten
ispilu ilunetan baino

laberintoko hormetan
nire izena idazten dut
inork irakur baleza
ez dadin senti
hain kiakarrik

gauaren atzekaldeko
eremu antzuetan
gorapilatzen amets txarrak

han hasten
zerumugarik gabeko mortuak
denboraezaren otsesioak
bisexudun izakien
estatua irriparretsu negartiak

gartzelako ateak
ez dira zabaltzen
hiltzeko ezik

ibai lehortuak
hareazko begidun piztiak
odol beltz sikua zainetan
planeta horiska motelaren
argipe hotzean

Hilotzak ez du
ispilua lausotzen
ezta bere irudia ikusten

Ixil zulagaitzean
txori harrituak
inondik ez zintzilik
desolamenduaren lekuko mutuak
gelditasun infinitoz

begi ezabatuak
ezerezaren
ezinezko ispiluak

Hain bakarrik
ez dadin senti
inork irakur baleza
nire izena idazten dut
laberintoko hormetan

ispilu ilunetan baino
ez da ikusten
argiaren itzala

Hiria

Seirak orduoro erloju eroan
semaforoa keinuka kolore horian
zerua ere goritasun zoroan
oparo dario herioa hiriari

Arenaleko zubia

Negar dagi
euriak
guardasol zulatuan
baita
urgaina likitsean
ere
eta
eskale bakartiaren
gabardina zarpailtsuan
zubia
ere
negarrez
euritako mutuz estalirik
zotinka
auto gurpilen
doinu atsekabeaz

Usoak

Usoak
gaztaroan
mentura libururik
irakurri gabeko
kalatxoriak dira

Kalatxori zoratuak I

ispilutasuna galduriko ibaitik ihes
kalatxori zoratuak eskapareteetan
miraila berrien bila beren buruen
irudi ahantziak berreskuratzeko.

Nerbioi

Galdurik urak bere ispilutasuna
galdurik kalatxoriak bere miraila
galdurik biok elkarren irudia
ibaia ez da besterik
aborto marroi hori haino
non ez baita sekula gehiagorik
ortzadarra isladatuko.

Denboraren korapilo askaezina
da
marrubien gorri mina
pausatu zaien ezpainak
mazustren moreaz
jantziko direla
eta
ortzadar multikoloreak
isladatu zaizkien begiak
gauaren beltzaz
estaliko direla
da
denboraren korapilo askaezina.

tren geldoetan
pilatzen
bidaiarien oroitzapen eroak
arratsero
karril herdoilduetan
haurtzaroko bagoi liluragarriak
bertan behera
ikustean
bertan behera
haurtzaroko bagoi liluragarriak
karril herdoilduetan
arratsero
bidaiariaren oroitzapen eroak
pilatzen
tren geldoetan

1982.ko abenduak 1

Gernika I

Picasso
gorpu
haritz zaharrean
zintzilik.

Usoa
zerraldo
azufrea begietatik
dariola

Avignoneko
emakumeak
beltzez jantzita
hilotz.

Arlekina
negarrez
mila ispilutan
sakabanaturik

Iparragirre
mutu
sokabako
gitarrari eragiten
mutu
iparragirre

Poetak
deitu ditugu
Poetak
etorri dira

Cesar Vallejo
lepoan ogi handia hartuta
mundu osoko umeak bilatzen

Pablo Neruda
kriseiluaz harmaturik
askatzailearen sustraiak arakatzera

Garcia Lorca bere balazuloak
poeta lagunarenetan luzatzera

eta

ezin
hitzetan
jaso

Pintoreak
deitu ditugu
Pintoreak
etorri dira

Goia
egunerokotasun lazgarrien
xehetasun jasangaitzez horniturik

Bosco
amets gaiztoetako
monstrutalde izugarrien artzain

Vicent
erotasunaren harunzko
mugakolorearen hari fina bilduz

eta
ezin
koloreetan
jaso

Itsastxorien bindikapena

Aizu, Pablo,
gorroto dut bakearen usoa
zeure usoa
Lapurtu egin digute
ohostu, ebatsi
nik dakit zein aditz erabili!

Pablo apostoluak
zalditik erori eta
jainkoaren argia ikusi
omen zuen
geu ere lurrean hankaz gora
inongo argirik ikusi ezinik
ez bada
kriseilu humilak opaltzen diguna

Gehiagorik ez da behar
hain gauza sinplea ikusteko
lapurtu egin digute usoa
orain hainbeste gorroto dudan usoa.
«Guernica» ere kaiolatu egin dizute

Madrilen
armaz defendatuko Madril horretan
odolez laztandutako Madril gorrian
izerdiz ezkerretakoa bataiatutako Madril ateoan
Madril galduan baino.

Ezin zitekeen
beste ezein modutara izan
Esan dizut, Pablo,
gorroto dugu uso prostitutatuori

Orain koadroa amaitzen ari gara
beste Picasso asko
Gernika bat egiten
bakoitza Picasso bat bagina bezala
zuk ez bait zenuen
astirik izan amaitzeko
koadro bat pintatuz ez bait da
inoiz
gerrarik amaitu
eta zuk
koadroan
gerra jaso zenuen
notario jaioa zinen horretarako

gerra ez da amaitu
koadroa ere ez

Guernica deskaiolatua, librea
Gernika jareinean
koadroan amai
daitekeen
toki
bakarrean

Bitartean
lapurtu egin dizute usoa

Federico, Pablo, Luis, poeten Madril berritsuan
«Noche de guerra en el museo del Prado»
berrantzeztu beharko genuke
ea oraingoan geuk irabazten dugun zure indar
guztiak han barruan izanik
«Noche de guerra en el museo del Prado»
baina inor ez da errepikatzen
historia ez da errepikatzen
«Guernica»n usoak
sobera zeuden
bai, horixe

orain bezala.

Bestela zeuk esango didazu Pablo
zer egin dezakeen usoak
uniformez jantzita, hanketatik Poturik (loturik?)
botaurreko ilundunen morroi beltzen eskutik

Bai, Pablo
orain ordaindu egin behar dugu zure «Guernica»
ikusteko
kaiolatua
kristalezko kaiolan (poesigai izan dugun kristala
zure magiaren kaiola)

«Guernica» ez dago Gernikan
Gernika gartzelatu batetan
ez bait da
horrenbeste askatasunik
horrenbeste askatasun minik karraixika
kabitzen
Guernica kaiolatua ez da Gernika kartzelatuan
kabitzen
nire begiez ez dut sekula halako itsuskeriarik ikusi
nola erabil litekeen usoa

zapaltzeko
Pablo, beste txori bat behar dugu
libertarioa
sekula kaiolatu gabea
puroa
nahiz eta hondakin odoltsuak jan
hegalari asperezina
gure askatasun minaren egarriaren irudia
lehenengo askatasuna delako
eta
gero
bakea

Hegazti hori itsasoan da
hara naramate nire oinek
bertara doa nire gogoa ere
kresal bizikorra irenstera
eguzkiaren eta urgaziaren
lurrezko emaitza birjinala
Harea igurikatzen nauzu
eta
bizitza bera den egonezina
Itsastxorien egonezina Pablo

Kantauri itsasoa

Gauerdian
oinutsik
zure hondartzetako
harea ligorra
zapaldu dut
Kantauri itsasoa.

Goizaldean
bilutsik
zure uhinetako
ur gaziak
laztandu nau
Kantauri itsasoa.

Egunsentian
zoraturik
zureganako
betirako maitasuna
zin dagizut
Kantauri itsasoa.

Itxasoa

Itsasoa ispilua da
bertan
zeru aldakorra isladatzen
aurpegi iluna
hondoratutako
gorpu pilatuek
osotzen dute

ispilua itsasoa da
bertan
irudi hutsalak
murgiltzen
bisaia iluna
hondoratutako
imagina iragankorrek
osotzen dute

metalezko itsasgaina horrek
ezpata dirudi
goizaldean
Hondoan
justizia ankerraren biktimak
beren izen propioekin
itoak

Izaro

Mendetan zehar itsasoan lo naro
ene harkaitz bakarti iraunkor
beti zure tokian mutu gotor
zaitut ikusten hortxe Izaro.

Urdinean itsastar mendiska ero
ekaitz-toki bildurrik bakoa
itsas-txorien hegal oparoa
sorbaldarentzako duzu habi bero.

Bustitasunean harrotasun lehor
herriaren gogotik ez bait doa
horko uhin oinetan ito den inor.

Betoz gugana beste mila gaztaro
bizitzaren lekuko harri gor
Kantaurin iraun ezazun luzaro.

Suzko txoria

Arrats gorria
mendien lepotik
logura emez
abiatzen gaua

Itsas basoetan
ardi arrainei
kresal esnea
darie artilezkatetan

Garretan itsasgaina
ostadarra hegalak
soma dizdirakorra
zerumugan izarniatuz

Patuaren iragarle
hitz baten
leher arazten
bihotzetan sumendiak

ASKATASUNA

marrazten ortzian
odol kolorez
SUZKO TXORIA

Lehena kixkalita
berarekin batera
utopia eraikitzen
geu ere KAIOAK.

Ohean nago etzanda eta ez nago ohean
gau erdian txakur zaunkek zabaldutako bidean noa
zaunkarik zaunka, bidez bide, logurean gora
Maindirepean eskua bihotzera daramat
sagar gorri baten taupadak sumatzen ditut
Ametsetan jan egiten dut sagarra
bihotzik gabe hilik geratzen naiz
zakur zaunka urrenagoek hestuagoa egiten duten
bidean
Haizeak gogor jotzen du leihoko kristaletan
horbelek ene gorpua estaltzen dute ahoz behera
natzalarik
Sagar honduak erori egiten dire nire inguruan
sistole eta diastole higidurek gorri-orlegituz aldika
Ez dakit eguna ala gaua denetz ere
eskua sexu inguruko basora hurbiltzen dudanean
zaunken gainetik kilkerren hots kilikakorrak
dantzudaz
ibai lodia mehetu egiten da murgildu ahala
Sagar bat ahoratzen dut, bizkar barneraino irentsiz
hasperenka bizirik nago ohean bihotza danbakada

Ibaia zakilaratu egiten zait ipurdizuloan behera
eskutara datorkit eta alde eginez doa berriro, zuri
Biloan aurkitzen ditudan sagar guztiak jaten ditut
odoletan dira eta ene soinean sagar haina bihotz
heuren bizitza propioz dardaratzen dira arritmikoki
musika estraino baten kontsonanteak ahozkatuz.
Sagarrak izan diren tokietan gorpuak agertzen
direnean
areagotu egiten da zaunken elkargurutzaketa zoroa
kilkerren hots beltz eguzkitiarra desagerraraziz
eta begiak zabaldu arren ez nago ohean, ohean
baino
Horbel artean natza oraindino jaiki ezinik
Ohea logelara ekarri nahi dut berriro zaunketan
behera
baina ixildu egiten dira begiak zabaltzen ditudaneko
eta logela bera horbelez betetzen da supitoki
iratzargailuaren tik-tak etengabeek zabaltzen duten
bidean
haize erritmiko bat dabil nire belarrien bila
sexua hanka tarteratu egin nahi dut baina
ezpain gozoek xurgatzen didate ixuri erazi arte
ibai urkulu batetan kilkerren ordezko hegaztihotsez
inguraturik

Espermaz bustirik bizkarreratzen ditut eskuak
elurtzan datzan neskatxaren titi biluzien bila
bere betzuloetan bi sagar gorri ageri dira
jan egiten ditut eta bi ibai hasten zaizkio
bistu egin nahi dut argia baina eguzkia lehertzen da
kristalezko euri fina ari du eta bonbilaren filamentoa
ostadarra bihurtzen da betzuloetara begi
multikoloreak erakarriz
Izerditan blai nago flashaldi gorri eta zurietan
inurritegi bat osotzen dute tantek flashaldi gorrietan
eta ezkataz estalirik irteten naiz ibaitik flashaldi
zurietan
bapatean hustu egin da urez sabairaino beteriko
gela.
Hotz naiz eta zeharkatu egin nahi dut ibaia
ohearen bila abiatu beharra daukat hotz naiz eta
Ixildu egin dira hegaztiak. Kilkerrak txakurrak
ez dago jada itzulbiderik sagar larriak botatzen ditut
begiak zabaldu arren ez dut ezer ikusten
begiak itxita ere ez dut deus ere ikusten
sistole diastole oihukatu nahi dut bihotza abia dadin
sagar gorria korapilatzen zait eztarrian itozear
ttua irentsi nahi dut sagarra askatzeko itotzear nago
eta zakurren zaunkek berrirekitako bidean behera

logelara itzultzen naiz maindirepean eskua bularrean
Argia pizten dut azkenean banan banan erreparatzeko
diren eta izan gabe ere diren guztietaz ikaraz oraindio
kanpoan euri tantak eskegitzeko sokan linburtzen dira
uralitazko teilatuan erortzeko hots atabalariz
inpazientziaz itxaroten ari denaren hatz mutak bailiran
taberna husturiko mahai zaharrean urduri joka
Zaunka ari izan den azken txakurrak mihingaina kanporatuz
xurgatu egiten ditu harian behera doazen tantak
uralitara heldu orduko eta ixildu egiten da atabalaria
Erlojua besterik ez dago bokal biren aldea duen obtsesio berarekin
automata baten bihotza bailitzan tiktak tiak tikak
ezin ditut betazalak bere erritmora akonpasatu ez egokitu
orduan betazalak zabaldu egiten ditut min hartu arte.

eta ixildu egiten da automata ankerraren bihotza
Espermaren usain sarkorra espermaren usain sarkorra da
kresal usain sarkorra bihurtu orduko eta kresalusaina
nahastu egiten da izerdiaren lurrunarekin eta arrainarena da
behorrean eguzkipean usteltzen ari den arrainaren kiratsa
emakume zabal baten alua dakarkidana irribarrez gogora
manteen uxun meheak besteak ixilarazten dituen arte
Une batez itxasoan izan naiz biankaren aurrean igerika
bizina pottoloaren oihartzunei entzungor eginez
Berehalaxe itzuli naiz astiro oinen gainean zutituz
Ohea logelan dago eta sukaldera abiatzen naiz
pasiloan den argazkiko ibaiaz ez ikusia eginez
mahai gaineko sagar erdi gorria erdi orlegia
ahoratzen dudan bitartean grifoari buelta ematen diot
gau osoan itogina izan den ixuria geldi araziz
Atea zabaltzera noala Berenicez gogoratzen naiz

aldi berean espermak hazgurea ematen didala sabilazalean

laugarrena hondartza hirugarrena belartza bigarrena

euritza lehena elurtza estop kalean nago

Alboko dendan sagar pilo perfektoak dituzte.

TRISTURAREN INBENTARIOA

Zeureganako minez
ez nauzu logale.

Gauak ematen ditut
nik kalerik kale.

Antuxumeak bailiran
dirdir hainbat ale.

Larre horretan nabil
izarren jagole.

Inorekin ezinda
neurekiko ele.

Ezpain hoien egarriz
tristura edale.

Arrats behera.
Itsaso lizun.
Bidean gora.
Asperen itun.
Hator gogora,
Asturu astun.
Zer haiz denbora,
Bideska ilun.
Banoa, nora?
Hainbeste asun!
Heure tripara,
Mamutzar jatun.

İtsasazal leuna
dagerren barea!
Eguzki galdatan da
urrea harea.

Kresala bezain zuri
hilobi karea
gorpu ustelkorretan
bazka zizarea

Lurpean sustraiturik
sortzen landarea.
Etengabe berrasiz
bizitza sarea.

Neonez asfaltoa
txarol ta harbela.
Egunak aurrera eta
lurrera horbela.

Lagun honek daduka
sabai txit goibela
edo tristura kolpez
aurpegi ubela.

Oroimenak ixurtzen
jario epela
Berreskura baneza
amaren sabela.

Denboraren denbora
iraganez hoa
ekarriz guregana
betirako loa

Zertzu ote presente,
iragan, geroa;
izan zein ez izan?
Hutsaren gakoa!

Laino mehez gordeta
azken itsasoa
Bertara bihoala
hegaka gogoa.

Oro ur zeneko margoaz itxasoa;
Oro ur zeneko marga urdinaz
ur itxasokoa.

Eta itxaso gabeko lehorreko lurra.
Lurrezkoak geu ere.
Geu ere hezur, urdail.
Eta lurrean diren zurezko zuhaitzetako
urrak
Eta urdeak bazkaturiko urbelarra
urdaia
Ur zein urrun
sua deneko lurruna
ur beroa
Ur errea ere
urrea
arrats urratuaren kolorea.

Urkiak ere urdinak
urdina gailurreko elurra
eta oro ur zeneko margo urdinaz
urtzia.

Haikuak

Arrain mutuak
igeri ez dakien
arrantzalearen sarean.

Gorrarentzat.
hitz laburrarena ere.
luzeegia da.

Herrenaren hitza
ez da
zertan
herrena izan behar
esan zuen herrenak
erran zuen herrenak
herrenak errana.

Heriotzaren titiburu ilunei
darien gau koloreko esneaz
elikatzen nauzu,
esperantza,
etsipenaren sorbalda traidore hori!

Beti uste izan duzue
tristurak biolinez jotzen duela.
Baina, nireak, galdu egin ditu partiturak;
ez daki ezer jotzen
eta ixiltasunak,
zulatu egin dizkit belarriak
nola hautsien egarri hutsez.
Mutua da nire tristura
poltsikoan zulo bat hazten
zaionaren antzezkoa,
ia, ia, igande arratsaldekoa.

Udazkena

Ene erresumina
eta pinuari darion erretxina,
biongan zauri berdina,
udazkena dela neguaren aintzina

Bakardadeak haginkada itzela egin dit
tristurako hamabietan
gaur inoiz baino hamabiago
edo inoiz baino tristeagoak.

Negua

Negu biluzia
euripean zamalkatuz dator,
bere urratsak elurrak estaltzen dituelarik.

Negua dator,
harro eta gorri,
barandiletara,
burdinetara,
kristaletara,
burdin eta tristura,
oro estaltzera:
oro biluztasunez janztera.

Tristuraren inbentarioa

Hiru katilukada ernegu esne
zenbait ontzikada tristura hauts
ahanztura gramo bi
merkromina flasko txiki bat
maixuak emandako lehen aurpegikoa
amaren hasperenik tristeena
kafesnearen zapore gaixotia
Hormako paper zikinean imaginaturiko neska bakartia
Aldizkarietako propagandatan maitatutako neska liraina
Santa Luciaren faktura ezin horiagoak
Bi dezibeliotako zotinak
Arratsalde euritsuen lepo imaginarioa
Eskaparatetako barrikadetan ezkuturiko armada garaitezinak
komuneko masturbaldi eroak
Mendilerro zerrendak eta hibaien garrantzia
Zabortegiko panpina elbarrituak
Portuan bustiriko galtzerdi zulatuak
Pelikula ez toleradak

Euki ez nuen telebista
Jose Beni, Padrinoa, ito egin direnak
Biodraminaren eragin biodramintsua
Cesar Vallejoren poemak
Burdinezko tristura uhertuak
Tristura bera.

Tristuraren inbentarioa berrikusi dut
oraintxe bertan arretaz
sobera legokenagatik
txarto burututako eragiketengatik
zenbaki gorriengatik
apur bat denarengatik
bildur mehe batez
        Zifra bakoitza bere toldan
        datak portzentaiak zorrak
        zigiluak helbideak
        ondo enkasilatuta
        aurkitu ditut
Ametsetan emandako musua
ezpainetatu zaidan arte
orduan konturatu bait naiz
errealitatetik ametsetara
dagoen alde infinito hori
ezin dezakedala
inola ere inbentarian sar
        Apurtu egin dut bai
        apurtu

apurka apurka
apur txikiena ere
eta tristurarekin geratu naiz
tristurarekin soilik
ametsetan emandako musuari
distantzia infinitotik
tristura infinitoz begiratzen
Ametsetetatik errealitatera
dagoen tristuragune infinitoan.

Aitaren etxean
dirua gordetzen denean
ez da gehiagorik
aitaren etxea
aitaren banketxea
baino
eta
nik
ez dut
inoiz
inoren banketxea defenditukо.

ALKODOLA

Alkodola

Edan ahala
hitz berriak asmatu beharra daukagu
kanpoan zein guregan dena
hitzez aipa ahal izan dezagun.
Alkoholari bidea ematen diote
asmakari berriak
alanbike arrago eta abar
izendatu ditugun era berean.
zainetan gora eta behera
dabilen alkoholak eragindako
begi urtsuetan
dagarren umore isladakorra ere
hortxe dago agirian
berari erizten dion hitzik ez dugula ...
... odol, umore...
alkohol aintzinodol protondol
Asma dezagun bada
hitz berria
borobila
bere perfekzio dialektikoz
errealitate berria izenda dezakena

Jainkoa bera asmatzeko gai ez dena
Odola izan gabe odola dena
Alkohola izan gabe alkohola dena
Alkohola? odola?
begietan dagerren zera hori
definituko duena.

ALKODOLA.

Igeri ikas balezate

Nigan alkoholak itotako pizti guztiek
igeri ikas balezate
eta eldarnio aldietan neuregana itzuli!
Mundu harrigarria osa nezake
muga berotsu labankorretan bizitzen
zoramenari aurpegian bertan hatsa botaka
berarengandik ezin hurbilago
edozein mementutan beraren hatzaparrez
eutsi eta besarkatzeko moduan
Agian haginkatu egin nintzakete
samako zainetan edo
Urtu egin ninteke odoletan
eta igeri egiten ikasitako piztiok
aterpeak zuloak habiak gordelekuak
paratu litzazkete nire gorpuan.
Zirkoa bihurtuta
neu ninteke pista eta ikusle
pizti eta hezle
sarrera aulki eta ume
Pailasoaldietan barre egin niezaioke
neure buruari,

eta zoroetxera eraman nintzakete
ez alkohola edateagatik
ez zirkoa eramateagatik
ez aulki eta ume izateagatik
ez muga berotsu labankorretakoengandik
ez neure buruari barre egiteagatik
ez ez eta ez.
Barre egite soilagatik
eraman nintzateke
zeri barre egin niezaiokeen
kontuan hartu barik
Barre egite soilagatik
nigan alkoholak itotakoek
igeri egiten ikas balezate.

Alkoholak eraildako neuronen batetan gorde bide
nuen
ez bait naiz gogoratzen.

Gogoratu egiten ditut, bai,
gaua,
kaleidoskopio hautsiaren
zatiez hiltzaturik,
txakurren zaunkadek
urraturiko ixiltasuna.
eta haizea,
laban zorrotza aurpegian.

Oroitzen naiz, baita,
baso ipurdiko izotz harkaitzetan aurkitu genituen
hartzez
zuri zuriak,
iparburuko egunsentiaren koloreko zure begietaz
eta mozkorrak eragindako zeure berbakera totelaz.

Nola ahaztu, aldiz,

Rolling-en kanta
sinkopatua,
itzulpen traketsa,
gonbidapenerako aitzakia.

Akorda egiten naiz.
Alkondara askatzean
bi uhin zuriska haiek
neure begietan etengabe
hautsiz eta berrasiz

Gomutatu behar, halaber,
portuko sarrerako muino borobilak eta portua bera,
berotasun ezez
abegia egiten ene itsasuntzi errakorrari.

Hasperenek, dardarek
kristaldurik diraute,
ahopeko hitz koloretsuz
estalirik
neure oroimen ahulean.

Baina zugana eraman ninduen sentipen bortitza:

zaldi erotua,
droga totala,
haragikara edo
bihotzikara,

hori,
ezin berreskuratu.
agian,
alkoholak erahildako neuronaren batetan gorde
nuelako.